## Parte hartu!

**Azaroak 30: 09:00-20:00, Zabiel**

Aurreko astelehenetik barikura (azaroak 24-azaroak 28): 10:00-15:00, UDALETXEA

## Participa!

**30 de Noviembre: 09:00-20:00, Zabiel**

De lunes a viernes (24 de noviembre-28 de noviembre): 10:00-15:00, AYUNTAMIENTO

# Herri galdeketa
# Azaroak 30

# MUTRIKUKO HONDAKINEN BILKETA SISTEMA




# SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS DE MUTRIKU

# SARRERA

Guztion ardura dira sortzen ditugun hondakinak. Honegatik mutrikuarron artean gure herrirako egokiena den hondakinak biltzeko modua erabakiko dugu.

Horixe da lortu nahi duguna, hondakinen egoera hobetu eta **%60ko sailkatze tasa eskuratzea Mutrikun**.

Mutrikuko Udalbatzak 2014 otsailean aho batez onartu zuen, Hondakinen Bilketa Sistema zein izango den erabakitzeko, herritarrekin partaidetza prozesua abian jartzea.

Prozesuaren amaieran, **HERRI GALDEKETA** egitea adostu zuen Udalbatzak, herritarrak izan zaitezten nahi duzuen hondakin bilketa sistema aukeratuko duzuenak.

Prozesu hori Hondakinen Batzordea ari da kudeatzen, honako taldeen ordezkaritzarekin: Bildu, EAJ, Berdeak+Independenteak, Mutriku Zero Zabor, Mutriku Natur Taldea eta Bosgarren edukiontziaren aldeko Plataforma.

Hondakin guztiak nahastuta botatzeari utzi eta hondakin bakoitza dagokion lekura botatzearen lan txikia gutako bakoitzaren ardura da, eta horretan guztiok ikasi eta hobetu behar dugu. Mutrikuko Udalaren aldetik, erraztasun guztiak jarriko dira norabide horretan behar beste ikas dezagun, baina garrantzitsuena norberak konpromisoa hartzea da.

Ez daukagu dudarik; oraingoan ere, mutrikuarron erantzuna ona izango da, eta gure eskualdean aitzindari izateko ardura horri erantzuten jakingo dugu. Mutrikuko hondakinak biltzeko modu eraginkorrena erabakitzea aukera eta horretan zu parte izatea dira gure benetako asmoak.

Aukeratu dezagun guztion artean Mutrikurentzat eta mutrikuarrontzat egokiena izango den hondakin bilketa sistema. Bozkatu eta ERABAKI!

*Son responsabilidad de todas y todos los residuos que generamos. Bajo ese principio queremos conseguir el objetivo de **obtener una tasa de reciclaje del 60%**, lo que nos pone ante el reto de doblar la tasa actual. Y en este camino queremos elegir entre las y los mutrikuarras cuál es el mejor sistema para ello.*

*El pasado febrero el pleno del Ayuntamiento de Mutriku decidió que iban a ser las y los mutrikuarras quienes decidieran mediante **CONSULTA POPULAR** cual iba a ser el sistema de recogida de residuos.*

*Tenemos que dejar a un lado el depositar los residuos mezclados, y separar cada residuo de la manera que corresponde. Esta pequeña tarea es responsabilidad de cada cual y el Ayuntamiento está dispuesto a poner las facilidades oportunas en esa dirección.*

*Estamos convencidas de que las y los mutrikuarras, una vez más, vamos a estar a la altura. Y nuestro deseo es que decidamos con el voto de cada mutrikuarra cuál es el sistema más eficaz y apropiado para Mutriku.*

*¡Te animamos a que votes y decidas!*



## EZAUGARRIAK (B AUKERA) / *CARACTERÍSTICAS (OPCIÓN B)*

- ✓ %75 inguruko sailkatze tasa eskaintzen du / *Ofrece una tasa próxima al 75% de selección de los residuos.*
- ✓ Papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira, orain arte bezala, edukiontzietan bilduko da / *El papel y el cartón, los envases ligeros y el vidrio se recogerán como hasta ahora en contenedores.*
- ✓ Organikoa eta errefusa kubo indibidualizatuetan (familia bakoitzak izango duen kuboa) aterako dira / *El orgánico y la fracción resto se depositarán mediante cubos personalizados (cada familia tendrá un cubo).*
- ✓ Organikoa eta errefusa ezarriko diren zintzilikario guneetara aterako dira arratsalde-gauez 3-4 orduz / *El orgánico y la fracción resto se recogerán en las zonas de colgadores que se habilitarán durante 3-4 horas a la tarde-noche*
- ✓ Organikoa astean 3 egunetan aterako da / *El orgánico se sacará 3 veces por semana.*
- ✓ Errefusa astean egun batean aterako da / *La fracción resto se sacará una vez por semana.*
- ✓ Edukiontzien ordutegi eta egutegia irekia izango da / *El horario de los contenedores será abierto.*
- ✓ Pixoihalak eta konpresak astean 4 egunetan jasoko dira zintzilikarioetan / *Las compresas y pañales se recogerán 4 días a la semana en los colgadores.*
- ✓ Papera/kartoia: dendei/tabernei atean jasoko zaie. Denda handiei astean bitan eta txikiei, astean behin. / *A los comercios se les recogerá el papel y el cartón 2 veces por semana a los grandes y una por semana a los pequeños en la puerta del establecimiento.*
- ✓ Organikoa: denda handiei astean 3 egun atean jasoko zaie. Txikiek herrian ezarriko diren 2 guneetara eramango dituzte. *El orgánico se recogerá 3 veces por semana en la puerta a los comercios grandes. Los pequeños los llevarán a 2 zonas de recogida que se habilitarán.*
- ✓ Errefusa komertzio handiei astean egun 1 atean jasoko zaie. Txikiek herrian ezarriko diren 2 guneetara eramango dituzte / *La fracción resto se recogerá 1 vez por semana en la puerta a los comercios grandes. Los pequeños los llevarán a 2 zonas de recogida que se habilitarán.*
- ✓ Ontzi arinak komertzio handiei astean 2 egun atean jasoko zaie. Txikiek herrian ezarriko diren 2 guneetara eramango dituzte / *Los envases ligeros se recogerán 2 veces por semana en la puerta a los comercios grandes. Los pequeños los llevarán a 2 zonas de recogida que se habilitarán.*
- ✓ Landa eremuan ekarpen guneak jarriko dira. Errefusa eta organikorako sarrerak giltza baten bidez kontrolatuak izango dira. (8 gune) / *En la zona rural se habilitarán zonas de aportación. Al orgánico y fracción resto tendrán entrada mediante llave.(8 zonas).*
- ✓ Larrialdi gune 1 jarriko da herrian. Bilketaren ordutegietara egokitzeko zailtasunak dituztenentzat edo ezohiko egoeretan aurkitzen direnentzat. Asteko egun guztietan eta eguneko edozein ordutan giltzarekin. / *Se habilitará 1 zona de emergencia para quienes tengan dificultad de adaptarse al horario o para situaciones excepcionales. Cualquier día y hora mediante llave.*

# B AUKERA: BILKETA SISTEMA MISTOA

## BERDIN JARRAITZEN DUTENAK / SIGUEN IGUAL



PAPERA ETA KARTOIA
Papel y cartón



ONTZI ARINAK
Envases ligeros



BEIRA
Vidrio

## ONTZI INDIBIDUALIZATU BIDEZKO BILKETA/ RECOGIDA EN CUBOS PERSONALIZADOS





AUTO EDO AUZO KONPOSTA



ORGANIKOA



ERREFUSA

PARDELAK ETA KONPRESAK ASTEAN 4 EGUN
Pañales y compresas 4 días

LARRIALDI GUNE 1
1 Zona de Emergencia

## LANDA EREMUA/Zona rural



8 EKARPEN GUNE
8 Zonas de aportación

# HONDAKINEN EGOERA

Hau da gaur egungo egoerak eskaintzen digun argazkia: Mutrikun, 2013.urtean, hondakinen %26,94 bildu genuen gaika sailkatuta. Hortaz, nahasita bildutako %73,51 da hobetzeko dugun margena.

*Durante el año 2013 en Mutrikun se recogieron de forma selectiva el 26,94% de los residuos.*




Irudian ikus dezakegu, gaur egun, materia nahasia (kontenedore berdean jasotzen dena) dela jasotzen denaren gehiagoa:

Gaur egungo nahasita botatzen ditugun hondakinen %16,93 baino ez da birziklagarria ez den materia. Gainontzeko guztia, %83,07, birziklatu dezakegu, eta gaur egun ez dugu egiten.

Hobetzeko daukagun margena handia da, ondo eginez gero, eta bidea egiten ikasiko dugu.

*Los siguientes datos nos indican como está compuesta la basura que a día de hoy no reciclamos en Mutriku y que podríamos reciclar. El margen de mejora que tenemos es muy amplio.*



# HERRI GALDEKETA

Mutrikuko Udalak herritarren parte hartze aktiboa sustatzeko helburu argiarekin, gure egunerokoan eragingo duen hondakinen bilketaren inguruko erabakia herritarrek hartzeko borondate osoa du, eta gai horren inguruko erabakia herri galdeketa bidez hartzeko bideak aurkezten dizkigu.

## **Zeinek hartu dezake parte?** *¿Quién puede participar?*

Mutrikun erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrak izango dira boto-emaileak. (2014ko azaroaren 6a baino lehen erroldatutakoak eta 2014ko azaroaren 30a baino lehen 16 urte dituztenak).

*Tienen derecho a voto todas las personas mayores de 16 años empadronadas en Mutriku (empadronadas antes del 6 de noviembre de 2014 y tengan los 16 años cumplidos antes del 30 de noviembre de 2014).*

## **Zertarako balioko du herri galdeketak?** *¿Para qué sirve la consulta popular?*

Mutrikuko Udalbatzak galdeketaren emaitza loteslea izateko, erroldatutako mutrikuarrenn %25ak hartu beharko du parte.

*Para que el resultado de la consulta popular sea vinculante tendrán que participar, como mínimo, el 25% de las personas empadronadas en Mutriku.*

## **Bermeak**/ *Garantías:*

Herri galdeketaren antolatzaile eta bermatzaile Mutrikuko Udala eta Hondakinen Batzordea izango dira.

*El Ayuntamiento de Mutriku y la Comisión de Residuos son las organizadoras y garantes de la consulta popular.*

Aurretik izena ematen duten Mutrikuko herritarrek azaroaren 30ean galdeketaren BEGIRALE izateko aukera edukiko dute.

*Las y los ciudadanos que hayan dado su nombre tendrán opción de ejercer de OBSERVADORES/AS el día 30 de noviembre.*



## *EZAUGARRIAK (A AUKERA)/ CARACTERÍSTICAS (OPCIÓN A)*

- ✓ Bilketa guztia edukiontzi bidez egingo da */ Toda la recogida se realizará mediante contenedores*
- ✓ Papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira, orain arte bezala, edukiontzietan bilduko dira / *El papel y el cartón, los envases ligeros y el vidrio se recogerán como hasta ahora en contenedores.*
- ✓ Organikoa eta errefusa: edukiontzi horien irekiera txip batekin kontrolatuko da / O*rgánico y la fracción resto: se controlará su apertura mediante un chip.*
- ✓ Herritarrak giltza batekin ireki ditzake organikoaren eta errefusaren edukiontziak / *La persona podrá abrir los contenedores de orgánico y fracción resto mediante una llave.*
- ✓ organikoa eta errefusa: herritar bakoitzak identifikatuta egongo den edukiontzi batetara botako du. Edukiontzi bakoitzean, batazbeste, 175 biztanlek izango dute sarbidea / *Cada persona depositará el orgánico y la fracción resto en un contenedor que estará identificado. A cada contenedor tendrán acceso cerca una media de 175 personas.*
- ✓ Organikoaren eta errefusaren edukiontziak egunero irekitzeko aukera egongo da / *El orgánico y la fracción resto se podrán depositar a diario.*
- ✓ Edukiontziak egun osoan erabiltzeko aukera egongo da / *Los contenedores se podrán utilizar durante todo el día*.
- ✓ Herrian edukiontzi guztiak izango dituzten guneak jarriko dira / *Se completarán zonas en el pueblo que dispongan de todos los contenedores.*
- ✓ Landa eremuan edukiontzi guztiak biltzeko guneak ezarriko dira. / *En las zonas rurales se habilitarán también zonas que cuenten con todos los contenedores.*
- ✓ Papera eta kartoia: komertzio handiek banatuko diren kuboetan, astean bitan, aterako dute eta astean behin, komertzio txikiek. Atean jasoko zaie / *En los comercios se sacará el papel y el cartón dos veces por semana en el caso de los comercios grandes y una vez por semana en el caso de comercios pequeños en los cubos que se repartirán. Se les recogerá en la puerta.*
- ✓ Organiko eta errefusa: komertzioek dagozkien txipdun edukiontzioetara aterako dituzte / *Los comercios sacarán el orgánico y la fracción resto a los contenedores con chip que les corresponda.*
- ✓ Ontzi arinak: komertzioek edukiontzietara aterako dituzte, orain arte bezala / *Los comercios sacarán los envases ligeros a los contenedores como hoy en día.*
- ✓ Beira: komertzioek edukiontzietara aterako dute, orain arte bezala / *Los comercios sacarán el vidrio a los contenedores como hoy en día.*

# A AUKERA: EDUKIONTZI BIDEZKO SISTEMA

BERDIN JARRAITZEN DUTENAK / Siguen igual




TXIPA IZANGO DUTENAK / Mediante chip






# HERRI GALDEKETAN, BOZKA EMATEKO BI MODU DAUDE

*Habrá dos maneras de votar:*

**AZAROAREN 30ean / 30 de NOVIEMBRE**

- ✓ **Lekua/Lugar:** Zabiel Kultur etxean/ *Casa de cultura Zabiel*
- ✓ **Ordutegia/Horario:** Goizeko 09:00etatik 20:00etara/ *De 09:00 a 20.00.*
- ✓ **Aurkeztu beharreko dokumentazioa/Documentación a presentar:**
  Pertsona bakoitzak bere identifikazio agiria aurkeztu beharko du (NAN, gida baimena, pasaportea, EHNA…). /*Cada persona deberá presentar su documento de identificación (DNI, carné de conducir, pasaporte, EHNA…)*

**AZAROAREN 24tik AZAROAREN 28ra / Del 24 al 28 de NOVIEMBRE**

- ✓ **Lekua/Lugar:** Mutrikuko udaletxean / *Ayuntamiento de Mutriku*
- ✓ **Ordutegia/Horario:** 10:00etatik 15:00etara /*De 10:00 a 15:00*
- ✓ **Aurkeztu beharreko dokumentazioa/ Documentación a presentar:**
  Pertsona bakoitzak bere identifikazio agiria aurkeztu beharko du (NAN, gida baimena, pasaportea, EHNA…). /*Cada persona deberá presentar su documento de identificación (DNI, carné de conducir, pasaporte, EHNA…)*

# INFORMAZIOA

Erabaki egokia hartzeko, modu egoki batean, informatuta egotea ezinbestekoa delako…

Herri galdeketaren inguruko informazio zehatza modu hauetan jasotzeko aukera izango duzue mutrikuarrok.

*Podeis obtener información concreta sobre la consulta de las siguientes maneras:*

- ✓ **Udalaren webgunean eskegiko den informazioa**
  ***Mediante la información disponible en la página web del Ayuntamiento***
  http://www.mutrikukoudala.net/herrian-bizi/hondakinak

- ✓ **Informazio saioak**/ Reuniones informativas:

  Galdeketaren inguruko argipenak egin eta zalantzak argitzeko saioak antolatuko dira.

  *Hemos organizado reuniones para explicar y aclarar dudas respecto a la consulta.*

  - **AZAROAREN 18an, 18:30ean, FRONTOIAN** (Herritar guztiei irekia)

    ***18 de NOVIEMBRE a las 18:30 en el FRONTÓN*** *(Abierto a todas/os las/os mutrikuarras)*

  - **AZAROAREN 19an, 19:00etan, GALDONAMENDIN** (landa eremuko mutrikuarrak)

    ***19 de NOVIEMBRE a las 19:00 en GALDONAMENDI*** *(mutrikuarras de zonas rurales)*

  - **AZAROAREN 20an. 15.00etan, ZABIEL KULTUR ETXEAN** (Hondakin sortzaile bereziak- komertzioak, elkarte gastronomikoak…)

    ***20 de NOVIEMBRE a las 15:00 en ZABIEL*** *(Generadores especiales de residuos- comercios, sociedades…)*



# HERRI GALDEKETAKO GALDERA

Mutrikuarrok erabakitzen dugun hondakinen bilketa sistemak lortu beharko duen helburua honako hau da: **hondakinen %60ko sailkatze-tasa.**

*El sistema de recogida de residuos que decidamos las y los mutrikuarras deberá lograr el objetivo de* ***obtener una tasa de selección de reisduos del 60%.***

Hondakinen Batzordeak erabakitako galdera honakoa da:
*Esta es la pregunta consensuada por la Comisión de Residuos:*

## *Zein hondakin bilketa sistema nahiago duzu Mutrikurako?*

## *¿Qué sistema de recogida de residuos quieres para Mutriku?*

Aukeratzen den sistema aukeratzen dela ere, Hondakinen Batzordeak hiru hilero jarraipena egingo dio eta beharrezko egokitzapenak egingo ditu. Sistemaren ezarpenetik bederatzi hilabetetara, beharrezkoa balitz, %60ko birziklapen tasa lortzeko neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

*Desde la implementación del nuevo sistema se realizarán evaluaciones y las adecuaciones que procedan cada 3 meses y a los 9 meses de su implantación en el caso de resultar necesario se aplicarán medidas correctoras con el fin de obtener una tasa de selección de los residuos del 60%.*

Behin herri galdeketan mutrikuarrok nahiago dugun sistema erabakitzen dugunean, INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO kanpaina zabala egingo da.

*Se realizará una campaña de INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN amplia una vez elegido cualquiera de los sistemas.*

Era berean, KONPOSTAJEA areagotzea izango da markatutako helburuak lortzeko ezinbesteko oinarria. Norabide horretan urrats sendoak emango dira, edozein izanda ere hautatzen den sistema.

*Aumentar el COMPOSTAJE será la base de cualquiera de los sistemas con el fin de conseguir los objetivos.*